

**“AREAGO. ISTORIOAK BELARRIETARA”  
V. EUSKARAZKO KONTAKIZUN LABURREN LEHIAKETA**

Generoa: Haur ipuina (Adina:8tik 12ra)

Gaia: Baserria eta paisaia

Hizkuntza: Euskara

Sariak: Lehena: 450 €

Bigarrena: 250 €

Hirugarrena: Nekazal etxe batean 2 gauetako egonaldia logela bikoitzean gosariarekin (2 pertsonentzat). Iraungitze-data: urte 1. (Nekatur)

Hautatutako ipuinen argitalpen ilustratua.

Deialdia: 18 urtetik gorako pertsona guztiei irekia

Antolatzaileak: Igartubeiti Baserri Museoa eta Kutxa Ekogunea

Jasotze epea: 2019ko ekainaren 14a, 19:00ak baino lehen

2017KO ARGITALPENA:



**2018KO ARGITALPENA:**



## AURKEZPENA:

Igartubeiti Museoak Kutxa Ekogunearekin lankidetzan, “Areago. Istorioak belarrietara” kontakizun laburren V. edizioaren deialdia egiten du. Deialdi honek idazketa euskaraz sustatzea eta zabaltzea du helburu, honakoan haur ipuinen generoa bereziki bultzatuz.

Gainera, kultur ondarearen inguruko lan modu berriak zabaltzeko eta parte hartze zein esperimentazio gune berriak sortzea du xede.

## GAIA:

Deialdiaren gaia baserria eta paisaia da.

Baserria bere inguruko paisaiaren zati da, are gehiago, ingurune hori horrela izatearen eragile ere bada. Izenak berak ere halaxe dio: “ baserria = basoko herria”. Baserriak, eta mende luzez bertan egin den bizimoduak lotura zuzena izan dute bere inguruko paisaiarekin. Bere bizimoduaren oinarria izan baita. Naturaren zikloetan oinarrituz, baserriko lanen bitartez baserriak inguratzen duen eremu natural horri forma, izena eta izana eman dizkio, gizakia eta naturaren arteko sare sendoak eraikiz. Hau da, gaur gure bazterretan dauden larre, pinudi, garo-sail, sagasti, harizti eta abarren atzean gizakiaren eskua dago, baserria dago, baserritarra dago.

Gizartea aldatu ahala, baserriak bere bizimoduan bertan ere eraldaketa nabarmena jasan du, industria, nekazaritza eredu berriak, azpiegitura berri (garraio bide sare berriak) eta teknologia berrietara egokituz eta hauekin bizitzen ikasiz, honela gaurko paisaia berriak sortuz.

Hala eta guztiz ere, etorkizuneko paisaiari begira, baserriak gizakiaren eta natur-paisaiaren arteko ezinbesteko zubia izaten jarraitzen du. Eta mendeetan zehar baserrietan bilduriko jakintza guzti hori gaur egun gure herri eta hiri inguruneetan dauden baratze ekologikoetan ikus dezakegu, ingurunearekiko jarduerak jasangarri modura. Beraz, hortxe dauzkagu gure baserri zaharren aztarnak gaurko paisaia berrietan.

**Igartubeiti Baserri Museoak** euskal baserriaren historia, bilakaera eta bertan bizi izan ziren biztanleen eguneroko bizimodua hurbiltzea du helburu, baliabide hauen bitartez: baserria bera, interpretazio zentroa eta baratze ekologikoa.

Balio kultural, historiko, antropologiko eta arkitektoniko multzo bat biltzen, babesten eta hedatzen du. Balio multzo honek euskal ondarearen elementu nagusi bihurtzen dute, hala nola, bikain mantendutako jatorrizko egurrezko egitura eta barruan duen sagardo dolarea. Horretarako, euskal kultur ondarearekin eta baserri munduarekin erlazionatutako aisialdi jarduerak antolatzen ditu.

**Kutxa Ekogunea** etorkizun jasangarriago bat lortzeko makina bat ideia proposatzen dituen parkea da. Kutxa Fundazioak bultzatuta, bere misioa kontzientziazioetik ekintzara igarotzeko bidea erraztea da, hezkuntza, aisia eta berrikuntzaren bitartez. Aldi berean, herri eta eskualdeetan aliantza bidezko proiektuak sustatzen ditu beste erakundeekin batera jasangarritasunaren sarea josiz, oraingo honetan Igartubeiti Baserri Museoarekin egiten duen moduan.

Nekazaritza arloan proiektu desberdinak gauzatu ditu ekintza propio gisa edota kolaborazioan, hala nola Baratze Parke Sarea, Baratze Eskola, Urrulloko agroaldea, Ekolapiko, Garaiko APP-a, Ingurumen Hezkuntza eta abar.

## PARTE HARTZEKO OINARRIAK:

Deialdia interesaturik dauden 18 urtetik gorako pertsona guztiei zabalik dago.

Ipuinak euskaraz idatziak, **8-12 urte bitarteko irakurleei zuzenduak** eta argitaragabeak behar dute izan, alegia, aurrez inongo literatura lehiaketan sarituak izan gabekoak, zein zatika ala osorik, ez paperen ez eta digitalki sekula argitaratu gabeak.

Lan bakarra aurkeztu dezake egile bakoitzak.

Kontakizunen luzapena gutxienezko 2 orritakoa eta gehienezko 3 orritakoa (din A-4) izango da, inprenta tipografian idatziak (edozein letra mota estandar 12 tamainan, alde batetik idatziak eta bere goiko ezkerreko aldetik gratatuak).

Aurkeztutako kontakizunak Igartubeiti Baserri Museoko eta Kutxa Ekoguneko web gunetan edo beste hedapen euskarrietan sareratzeko erabili ahal izango dira egileekin aurretiko akordioa izanik eta beti egilea aipatuz.

## BALORAZIO IRIZPIDEAK:

Kontakizunen balorazio eta aukeraketa prozesuan ondorengo irizpideak betetzea modu positiboan aintzat hartuko da:

- Kalitatea eta originaltasuna
- Proposatutako gaiarekiko eta generoarekiko egokitzapena
- Irakurle hartzaileari egokitutako kontakizuna
- Sormena
- Oinarri hauetan proposatutako hedapena eta formatua

## SARIAK:

Deialdi honek ondorengo sariak izango ditu:

Lehena: 450 €\*  
Bigarrena: 250 €\*  
Hirugarrena: Nekazal etxe batean 2 gauetako egonaldia logela bikoitzean gosariarekin (2 pertsonentzat). Iraungitze-data: urte 1. (Nekatur)

(\* Kantitate hauei indarreko legearen arabera atxikipen fiskala ezarriko zaie.)

Gainera, hautatutako ipuinen argitalpen ilustratua egingo da (tartean lehen, bigarren eta hirugarren sariak egongo dira).

## AURKEZPEN GUNEA ETA EPEA:

Kontakizunen jasotze epea 2019ko ekainaren 14an bukatuko da, eguna barne.

### Kontakizunen bidalketa:

- Kontakizunak goiburukoan izenburuekin eta ezizenaz sinatuak bidali beharko dira, izena emateko eskaerarekin batera. Halaber, egileak adierazpen bat sartuko du esanez aurkeztutako lana originala eta argitaratu gabea dela, bere eskubideak ez dituela utzita eta ez dela beste lehiaketaren batean saritua izan ezta epaiaren zain ere.
- Kontakizunak posta elektronikoz igartubeiti@gipuzkoa.eus hebidera pdf euskarrian edo posta arruntez bidali daitezke:

Igartubeiti Baserri Museoa  
Ezkio bidea 1. Km  
20709 Ezkio-Itsaso (Gipuzkoa)

- Posta elektronikoaren gaian edo gutun azalean agertu beharko da:  
*AREAGO. ISTORIOAK BELARRIETARA. V. KONTAKIZUN LABURREN LEHIAKETA*
- Kontakizunak pertsonalki, bere irekiera ordutegian, Igartubeiti Baserri Museoko Interpretazio Zentroan aurkeztu daitezke.
- Oinarri hauetan azaltzen diren betebeharretakoren bat betetzen ez dituzten lanak ez dira onartuak izango.

15/1999 Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko Lege Organikoaren eta 2007ko abenduaren 21eko araudiaren garapenenaren arabera, lehiaketa honetako parte hartzaileek emandako datuak Igartubeiti Baserri Museoko kudeatzailea den K6 Gestión Cultural-aren ardurapean dagoen fitxategi batean jasoko ditugu eta lehiaketa honetarako bakarrik erabiliko dira.

Izaera pertsonaleko datuak egokiak diren babespe mailarekin erabiliko dira, datu horiek aldatzea, galtzea, baimenik gabe tratatzea edo eskuratzea saihesteko. Datuen jabeek sarbide, zuzenketa, indargabetzea edo aurkaritza eskubideak gauzatu ahal izango dituzte.

## AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA (pdf euskarrian, posta elektronikoz bidaltzen bada):

- Izen emate eskaera osatua (oinarriekin batera topatuko duzu)
- Aurkeztutako lana originala eta argitaratu gabea dela, bere eskubideak ez dituela utzita eta ez dela beste lehiaketaren batean saritua izan egiaztatzen duen adierazpena.
- Kontakizunaren egilearen NAN-aren fotokopia.
- Kontakizun originala eta bi kopia.

(Kontakizunak goiburukoan izenburuekin eta ezizenaz sinatuak bidali beharko dira, izena emateko eskaerarekin batera. Halaber, egileak adierazpen bat sartuko du esanez aurkeztutako lana originala eta argitaratu gabea dela, bere eskubideak ez dituela utzita eta ez dela beste lehiaketaren batean saritua izan ezta epaiaren zain ere.

## EPAIMAHAIA:

Igartubeiti Baserri Museoko ordezkaria, Kizkitza Ugarteburu  
Kutxa Ekoguneko ordezkaria, Kakun Orbegozo  
Irati Goikoetxea, idazlea, blogaria eta irrati esataria

## DEIALDIAREN EMAITZAK:

Hautatutako kontakizunen argitalpena egingo da. Hautaketa deialdiaren epaimahaiak egingo du.

## HAUTAGAIEN ENGAIAMENDUA:

Deialdi honetan parte hartzeak oinarri hauek erabat onartzea dakar.

Parte hartzaileak deialdi honetara aurkeztutako kontakizunen originaltasunaren eta egiletasunaren erantzule dira, eta zentzu honetan, Igartubeiti Baserri Museoari eta Kutxa Ekoguneari erabilera bermatzen diete, beraien aldetik guzti hau ez betetzeak modu zuzenean edo zeharka eragin ditzakeen kalteen erantzukizunetatik salbuesten ditu.

## JABETZA INTELEKTUALA:

Parte hartzaileak egiaztatzen du bere lan propioa dela eta hirugarrenei eragin diezaiokeen eskubideetatik askea dela.

Egileek aurkeztutako lanen ustiapen eskubideak bakarrik deialdi honetako eta bere emaitzen hedapen asmoetarako dohain baina ez modu eksklusiboan hezkuntzarako uzten dizkiote Igartubeiti Baserri Museoari, bere kudeaketa enpresaren bitartez, K6 Gestión Cultural IFK b-20482303 eta Kutxagestion Zerbitzuak S.L.U.-ri (Kutxa Ekoguneari), B-75146043 IFK .

Horrela, K6 Gestión Culturelek eta Kutxa Ekoguneak, bi museoetako kultur programazioaren barne kontakizunak hedatu ahal izango dituzte, hezkuntza jardueretan, edozein argitalpenetan, idatzizko komunikabideetan, ikus-entzunezkoetan edo web guneetan, epe mugagabea, beti ere egilearen jabetza intelektualaren errespetatuz.

## DEIALDIAREN ERABAKIA:

Xede horretarako izendatutako epaimahaiak aurkeztutako kontakizunak balioztatuko ditu eta **2019ko uztailaren 1eko** asteen erabakia emango du. Lehiaketako irabazleei pertsonalki telefonoz jakinaraziko zaie.

- Igartubeiti Baserri Museoak eta Kutxa Ekoguneak lehiaketaren emaitza hutsik gelditzeko eskubidea izango dute.
- Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauetako betebeharrak eta baldintza bakoitza eta era berean guztiak baldintzarik gabe onartzea suposatzen du.

## ARGIBIDEAK ETA INFORMAZIOA:

Igartubeiti Baserri Museoa  
Tfnoa: 943 72 29 78 /943 72 51 07  
E-mail-a: [igartubeiti@gipuzkoa.eus](mailto:igartubeiti@gipuzkoa.eus)  
[www.igartubeitibaserra.eus](http://www.igartubeitibaserra.eus)



-k sustatua

